# GERNUA BATZEA HAZKUNTZA EGITEKO

# RECOGIDA DE ORINA PARA CULTIVO

Edozein pertsona lagina behar bezala hartzeko gai izatea da idazki honen helburua: beharrezkoak diren jarraibideak ematea laginaren emaitza analitikoak baliagarriak izan daitezen.

Beraz, jarraibideok ARRETAZ IRAKURTZEKO eskatzen dizugu (zure hoberako delako, eta hartu behar duzun laginaren emaitza analitikoak benetan erabilgarriak izan daitezen).

EZ HARTU INOLAKO LAGINIK idazki honetan azaldutakoa ulertu duzula argi eduki arte. Zalantzarik izanez gero, mesedez, jarri harremanetan telefonoz gurekin:

Doktorea: ______________________________________

Telefono zk.: ______________________________________

## 1. LAGINA HARTU AURRETIK

Egiaztatu jarraibide hauek bete dituzula:

- **DIETA:** ez daukazu inolako debekurik edo ardura berezirik eduki behar janarekin.
- **MEDIKAMENTUA:** ez da beharrezkoa normalean edo noizean behin hartzen duzun/dituzun medikamentua/k hartzeari uztea.

- **Jarraibide horiek bete badituzu**, hartu laginak biltzeko ontzia. Ontzi horrek ezaugarri hauek bete behar ditu:
  - Ontziak **esterila** izan behar du; beraz, poltsa **ITXI** baten barruan egon behar du.
- Lagina egoki hartzeko EZINBESTEKOA da ORAIN zeure burua garbitzea:
  - **Garbitu genitalak lehenengo**, ura eta xaboia erabiliz, goitik beherako norabidean.
  - Gizonezkoek prepuzioa atzera bota beharko dute garbiketa behar bezala egiteko; emakumeek ezpain handiak eta txikiak bereizi behar dituzte ondo garbitzeko.
  - Edozein kasutan, bai gizonek bai emakumeek higiene-zapi komertzialak ere erabil ditzakete genitalak garbitzeko, nahi izanez gero.
- GERNU-INFEKZIOAK ANTZEMATEKO LAGINIK ONENA **GOIZEKO LEHENA DA**.
- Mesedez, egiaztatu aurreko ohar horiek bete dituzula lagina hartzen hasi aurretik.

Este documento tiene como misión la adecuada transmisión de instrucciones para que una persona normal pueda tomar una muestra de forma correcta y que no invalide los resultados analíticos posteriores.

Por tanto, le rogamos (por su interés y por la utilidad de los resultados analíticos de la muestra que va a tomar) que LEA CUIDADOSAMENTE las instrucciones que le detallamos a continuación.

NO TOME NINGUNA MUESTRA hasta que no esté seguro de haber comprendido el contenido de este documento. En caso de duda, por favor, póngase en contacto telefónico con el Dr./Dra.______________________ en el teléfono de contacto ____________________.

## 1. ANTES DE TOMAR SU MUESTRA

Compruebe que ha cumplido las siguientes normas antes de este momento:

- **DIETA**: no hay ningún tipo de prohibición o precaución sobre los alimentos tomados.
- **MEDICAMENTOS**: no es necesario eliminar ningún medicamento que tome habitual o esporádicamente.

- **Si ha cumplido las instrucciones previas** definidas en **1**, busque el recipiente para la toma de muestras. Este recipiente debe cumplir las siguientes condiciones:
  - El recipiente debe ser **estéril**, por lo que debe estar dentro de una bolsa **CERRADA**.
- Para la correcta toma de la muestras es INDISPENSABLE que realice AHORA las siguientes prácticas de higiene personal:
  - Primero es necesario realizar una **limpieza previa de los genitales** utilizando agua y jabón, siguiendo la dirección de arriba a abajo.
  - En el caso de hombres, debe retirar el prepucio para realizar dicha limpieza y en el caso de mujeres debe separar los labios mayores y menores para realizar la misma operación.
  - En ambos casos, la limpieza de los genitales también se puede realizar con las toallitas higiénicas comerciales diseñadas para este uso.
- LA MUESTRA MEJOR PARA LA DETECCIÓN DE INFECCIONES URINARIAS ES LA **PRIMERA DE LA MAÑANA**.
- Por favor, revise si ha cumplido adecuadamente los puntos anteriores antes de pasar a la toma de la muestra.

## 2. LAGINA HARTZEA

- Garbitu genitalak aurreko puntuan azaldu bezala.
- Ireki ontzi esterilaren zorroa
- Kendu ontziari tapoia eta utzi leku garbi batean, gorantz begira.
- Hasi txiza egiten baina ez hartu txizaren lehen zorrotada.
- Lehen zorrotada pasatuta, jaso txiza zuzenean ontzi esterilean.
- Nahikoa txiza bildutakoan (ontziaren bolumen osoaren ¾ baino gehiago), kendu ontzia eta itxi hermetikoki.

## 3. ETXEAN EDUKITZEKO

- Uste baduzu txiza-lagina ez duzula eroango lagina hartu eta ordu bi baino lehen, gorde poltsa hotzean, 4ºC-tan.

## 4. LABORATEGIRA JOAN ETA LAGINA EMATEA

- Laginak tenperatura altuetatik eta hotzetatik babestu behar dira laborategira eraman arte, eta garraioa ahalik eta arinen egin behar da.

Jarraibide hauek zehatz-mehatz bete badituzu, zure analisiaren emaitzak zuzenak izango dira eta medikuak diagnosi azkar eta egokia egin ahal izango dizu.

## 2. TOMA DE MUESTRA

- Realizar la limpieza previa de los genitales, según el anterior punto .
- Abrir la bolsa que contiene el recipiente estéril
- Desenroscar el tapón de dicho recipiente, dejando la tapadera boca arriba en una superficie limpia
- Iniciar la micción y desechar el primer chorro de orina.
- Orinar directamente en el recipiente estéril
- Una vez recolectada la cantidad suficiente de orina (más de las ¾ partes del volumen total del recipiente), retirarlo y proceder a cerrarlo herméticamente..

## 3. MANTENIMIENTO EN SU HOGAR

- Si espera entregar la muestra de orina pasadas más de 2 horas desde la toma, mantenga la bolsa refrigerada a 4ºC.

## 4. DESPLAZAMIENTO Y ENTREGA EN EL LABORATORIO

- Las muestras deben protegerse de las temperaturas altas durante el traslado al Laboratorio, procurando que el tiempo utilizado sea el mínimo posible.

Si Ud. ha seguido fielmente estas instrucciones, los resultados de su análisis serán correctos y permitirán a su Médico la realización de un diagnóstico rápido y certero.